

Mesedez, irakurri erabilera-jarraibideak gailua erabili aurretik.

# alcatel

## POP4 PLUS

### BIZKOR HASTEKO GIDA

Aurreko  
kamera



Aurreko  
flasha

Pizteko tekla

Bolumena  
igotzeko/  
jaisteko botoia

5056A


5056J

5056M


**Euskaltelek itzulitako eta  
ekoiztutako eskuliburua**



Atera edo jarri atzeko  
estalkia



Bateria Kargatu



1. microSD txartela sartzea eta ateratzea.
2. SIM txartela instalatzea eta ateratzea (5056J modelorako bakarrik).
3. SIM txartela instalatzea eta ateratzea.

Erabilera-jarraibideak eta ohiko galderak,  
laguntza-atalaen:

[www.alcatel-mobile.com](http://www.alcatel-mobile.com)

PAPERA  
ARRERZTU  
ZUHAIKAZ  
EZ MOZTU.

INPRIMATU AURRETIK,  
INGURUMENEAN PENTSATU.

# Pantaila nagusia.....

Sarrien erabiltzen dituzun elementuak (aplikazioak, lasterbideak, karpetak eta widgetak) jar ditzakezu pantaila nagusian, haietara azkar iristeko. Sakatu **hasierako tekla**, pantaila nagusira itzultzeko.



## **Egoera-barra**

- Egoera-adierazleak/jakin-arazpena.
- Ukitu hau eta arrastatu beherantz jakinarazpen-panela irekitzeko.

## **Bilaketa-barra**

- Ukitu 1, testu bidezko bilaketa-pantailan sartzeko.
- Ukitu 2, ahots bidezko bilaketa-pantailan sartzeko.

Ukitu ikono bat aplikazioak, karpetak eta abar irekitzeko.

## **Gogoko aplikazioen ontzia**

- Ukitu aplikazioa irekitzeko.
- Luze sakatu aplikazioak mugitzeko edo aldatzeko.

Ukitu aplikazio gutzien zerrendan sartzeko.

Pantaila nagusia handituta azaltzen da, toki gehiago izan dezazun aplikazioak, lasterbideak eta abar gehitzeko. Lerratu pantaila nagusia horizontalean, ezkerretik eskuinera, pantaila nagusiaren ikuspegi osoa izateko.

## 1.1 Egoera-barra

Egoera-barratik, telefonoaren egoera (eskuinean) eta jakinarazpenen informazioa (ezkerrean) bistaratu ditzakezu.

Ukitu eta arrastatu kurtsoera beherantz egoera-barratik, doikuntza azkarreko panela edo jakinarazpen-panela irekitzeko. Ixteko, ukitu eta arrastatu gorantz. Jakinarazpenak daudenean, ukitu egin daitezke, zuzenean irakurtzeko.

## Jakin-arazpen-panela

Jakin-arazpenik baduzu, ukitu eta arrastatu egoera-barra beherantz, jakinarazpen-panela irekitzeko eta informazio xehatua irakurtzeko.



Ukitu hau doikuntza azkarreko panelera aldatzeko.

Ukitu, gertaerei buruzko jakinarazpen guztiak ezabatzeko (gainerako jakinarazpenak gorde egingo dira).

## Doikuntza azkarren panela

Ukitu eta arrastatu jakinarazpen-panela beherantz, edo ukitu doikuntza azkarreko panela irekitzeko. Funtzioak gaitu edo desgaitu ditzakezu, edo moduak aldatu ikonoak ukituta.



Ukitu hau erabiltzailearen pantailara sartzeko.


Ukitu **Ezarpen** aukerara sartzeko eta beste elementu batzuk doitzeko.

# 2 Telefono-deia .....



## 2.1 Deiak egitea

Telefonoa aktibo dagoenean telefonoz deitzeko, zoaz pantaila nagusia eta ukitu telefonoaren ikonoa gogokoan ontzian.



Lerratu **AZKENAK** eta **KONTAKTUAK** ataletara sartzeko.

Ukitu hemen menua ikusteko.

Iradokitako zenbakiak bistaratzeko.

Luze sakatu, ahots-postontzira sartzeko.


Sartu nahi duzun zenbakia zuzenean teklatuaren bidez, edo ukitu deitzeko. Bestela, kontaktu bat hauta dezakezu **KONTAKTUAK** edo **AZKENAK** aukeretan, fitxak arrastatuta edo ukituta, eta, ondoren, deia egin.

**Kontaktuak** aukeran sartutako zenbakia gordetzeko, ukitu eta hautatu **Gehitu kontaktu berria**.

Nahasten bazara eta okerreko zenbakiak ezabatu nahi badituzu, ukitu behar duzu.

Deia esekitzeko, ukitu .

## 2.2 Dei bati erantzutea edo ez onartzea



Dei bat jasotzen duzunean:

- Lerratu ikonoa eskuinerantz, deiari erantzuteko;
- Lerratu ikonoa ezkerrerantz deia ez onartzeko;
- Lerratu ikonoa gora deia ez onartu eta aurrez ezarritako mezu bat bidaltzeko.

Sarrerako deien bolumena isilarazteko, sakatu **Bolumena igotzeko/jaisteko** botoiak (edo jarri telefonua buruz behera pantaila behera begira egon dadin (**Ezarpn/Aurpegiarak/Biratu isilarazteko** aukera aktibatuta baldin badago).



## 2.3 Deien erregistroa kontsultatzea

Telefonoaren pantailan **AZKENAK** sakatuta, deien erregistroa sarzaitzeko, dei galduak, irteerako deiak eta sarrerako deiak ikusteko.

# 3 Kontaktuak.....

Zure telefonon kontaktuak bistaratu eta sor ditzakezu, eta Gmailleko edota sareko nahiz zure telefonoko beste aplikazio batzuetako kontaktuekin sinkroniza ditzakezu.

## 3.1 Kontaktu bat gehitzea

Ukitu  aplikazio-zerrenda eta ukitu  ikonoa kontaktuen zerrendan kontaktu berri bat sortzeko.


## 3.2 Zenbait kontutako kontaktuak sinkronizatzea

Zenbait kontutako kontaktuak, datuak eta bestelako informazioa sinkroniza daitezke, telefonon instalatutako aplikazioen arabera.


# 4 Mezuak .....


Telefono honen bidez, SMSak eta MMSak sortu, aldatu eta jaso ditzakezu.

Mezuak irekitzeko, zoaz pantaila nagusira eta ukitu mezuaren ikonoa gogokoen ontzian.

 SIM txartelean gordetako mezuak kontsultatzeko, ukitu (...) ikonoa mezuaren pantailan, eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak/ EZARPEN AURRERATUA/Kudeatu SIM mezuak**.

## 4.1 Mezua idaztea




Mezu-zerrendaren pantailan, ukitu mezu berria idazteko ikonoa , testu-mezuak edo multimedia-mezuak idazteko.



- Ukitu hau mezu-kate osoa ikusteko.
- Luze sakatu ezabatzeko.

Ukitu hau mezu berri bat sortzeko.

## Testu-mezu bat bidaltzea

Idatzi hartzailerean zerbakia **Hartzailea** barran, edo ukitu  hartzailereak gehitzeko, eta ukitu **Bidali mezua** barran mezua idazteko. Ukitu  ikonoa aurpegierak edo ikonoak txertatzeko. Bukatzen duzunean, ukitu , testu-mezua bidaltzeko.



160 karaktere baino gehiago dituen SMS mezu bat hainbat SMS mezu bezala kobratuko da. Karaktere bereziek (azentudunek) ere handitu egiten dute SMSaren tamaina. Beraz, baliteke hartzailerei zenbait SMS bidaltzea.

## Multimedia mezu bat bidaltzea

Multimedia-mezueta, bideoak irudiak, argazkiak, animazioak, diapositibak eta soinuk bidal ditzakezu beste mugikor bateragarri eta helbide elektroniko batzuetara.

SMSak, automatikoki, MMS bihurtzen dira baldin eta multimedia fitxategiak (irudia, bideoa, audioa, diapositibak, etab.), gaiak edo posta elektronikoko helbideak eranstean badira.



# 5 Posta elektronikoa .....

## 5.1 Gmail






Telefonoa konfiguratzeko den lehenengo aldian konfiguratzeko da Gmail, Googleren webgunea oinarri duen posta elektronikoko zerbitzua. Telefonoko Gmail-posta automatikoki sinkroniza daiteke on-lineko Gmail-kontuarekin. Aplikazio hori erabiliz, mezu elektronikoa bidali eta jaso, etiketa bidez ordenatu eta artxibatatu egin daitezke, besteak beste.

### Gmail irekitzeko

Pantaila nagusiko gogokoan ontzian, ukitu Gmail ikonoa .

Gmail-eko kontu baten mezu eta elkarrizketak bakarrik bistaratu ditzake aldi berean Gmail-ek. Kontu bat baino gehiago baduzu, honela gehitu:  ikonoa eta, ondoren, sarrerako ontziaren pantailaren kontu-izenaren ondoren ageri den  ukituta; ondoren, **Gehitu kontua** ukitu. Amaitutakoan, beste kontu batera jo nahi baduzu, ukitu ikusi nahi duzun kontuaren izena.

Mezu elektronikoa sortzea eta bidaltzea

1. Ukitu  sarrerako ontziaren pantailan.
2. Idatzi mezuaren hartzailearen helbide elektronikoa **Hartzailea** eremuan.
3. Behar izanez gero, ukitu **CC/BCC** menuaren  ikonoa mezuaren kopia bat edo ezkutuko kopia bat gehitzeko.
4. Idatzi mezuaren gaia eta edukia.
5. Ukitu  ikonoa eta hautatu **Erantsi fitxategia** fitxategi bat eransteko.
6. Azkenik, bidaltzeko, ukitu  ikonoa.
7. Mezu elektronikoa une horretan une horretan ez baduzu bidali nahi, ukitu  ikonoa eta, ondoren, **Gorde zirriborroa** edo **Itzultzeko tekla** kopia bat gordetzeko. Zirriborroa ikusteko, ukitu kontuaren izena etiketa guztiak bistartzeko, eta, ondoren, hautatu **Zirriborroak**.

# 6 Nola konektatu .....

Telefonoa honetatik Internetera konektatzeko, 2G/3G/4G sareak edo WiFi-a erabili ditzakezu, ondoena datorkizuna.

## 6.1 Internetera konektatzea

### 6.1.1 2G, 3G, 4G


SIM txartela sartuta duela telefonoa pizten den lehenengo aldian, automatikoki konfiguratu da sare-zerbitzua: 2G, 3G, 4G.

Zer sare-konexio erabiltzen ari zaren begiratzeko, ukitu **Ezarpen/Gehiago..../Sare mugikorrak** eta, gero, **Sarbidetuen izenak** edo **Sare-operadoreak**.

### 6.1.2 Wi-Fi

WiFi-aren bidez, Internetera konekta zaitzake telefonoa hari gabeko sare baten irismen-eremuan dagoenean. Telefonoan WiFi erabili daitzake, SIM txartelik jarri gabe ere.

### WiFi aktibatzea eta haririk gabeko sare batera konektatzea

- Ukitu **EzarpenWiFi**
- Ukitu  botoia WiFi funtzioa aktibatzeko/desaktibatzeko..
- WiFi sareen atalean atzemandako WiFi sareei buruzko informazio xehatua azalduko da.
- Konektatzeko, ukitu WiFi sare bat. Hautatzen duzun sarea segurua bada, pasahitza edo bestelako egiaztagiriren bat sartu behar duzu (sare-operadorearekin harremanetan jar zaitzake, xehetasunen berri izateko). Bukatzen duzunean, ukitu **KONEKTATU**.